

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

320/2025 Foru Agindua, uztailaren 7koa. Karrerako funtzionario izendatzea, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2019ko enplegu publikoaren eskaintzan karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: Administrazio Bereziko eskala, teknikarien azpieskala, goi-mailako teknikarien klasea, Ekonomia eta Enpresa zientziak, A taldea, A1 azpitaldea (kodea: 1119)

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren abenduaren 21eko 600/2022 Foru Aginduaren bidez, oinarri orokorrak onetsi ziren, 2019ko enplegu publikoaren eskaintzaren ondorioz Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren zerbitzura karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesua arautuko dutenak.

Abenduaren 22ko 612/2022 Foru Aginduaren bidez, onespena eman zitzaizen Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2019ko enplegu publikoaren eskaintzan karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdi honi eta oinarri arautzaileei: Administrazio Bereziko eskala, teknikarien azpieskala, goi-mailako teknikarien klasea, Ekonomia eta Enpresa zientziak, A taldea, A1 azpitaldea (kodea: 1119). Foru agindu hori, deitutako plazen kopuruari dagokionez, uztailaren 29ko 277/2024 Foru Aginduaren bidez aldatu zen.

Hautaketa prozesua amaitu eta epaimahai kalifikatzaileak hura gainditu duten izangaiak izendatzeko proposamena egin ondoren, karrerako funtzionario izendatu behar dira hemen: Administrazio Bereziko eskala, teknikarien azpieskala, goi-mailako teknikarien klasea, Ekonomia eta Enpresa zientziak, A taldea, A1 azpitaldea.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala. Horrez gain, ekainaren 30eko 150/2023 Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin bat etorritz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Karrerako funtzionario izendatzea, ondoren adierazten diren lanpostuei atxikita, deialdi hau gainditu duten izangaiak: Administrazio Bereziko eskalan, teknikarien azpieskalan, goi-mailako teknikarien klasean, Ekonomia eta Enpresa zientziak, A taldean, A1 azpitaldean karrerako funtzionario sartzeko Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2019ko enplegu publikoaren eskaintzaren deialdia:

IZENA/ NOMBRE	KODEA/ CÓDIGO	LANPOSTUA/ PUESTO
Luisa López Luque	1499.001	Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko kudeaketa teknikaria
Mónica de la Fuente Badallo	1137.005	Ekonomia eta aurrekontu kontrolako teknikaria
Iratxe Arceniega Gorostiza	1499.002	Idazkaritza Teknikoko kudeaketa teknikaria
Leire Murua Ezeizabarrena	1178.001	Egitura funtsen kudeaketako eta kontrolako teknikaria
Cristina Muñoz del Val	1152.002	Finantza Kudeaketako teknikaria
Jon Ajuria Lastra	1499.003	Idazkaritza Teknikoko kudeaketa teknikaria
Nuria Varga Mediavilla	1149.001	Funtzio Publikoko Idazkaritza Teknikoko kudeaketa teknikaria
Yolanda Galaz Vidal	1164.001	Zergabilketako teknikaria

IZENA/ NOMBRE	KODEA/ CÓDIGO	LANPOSTUA/ PUESTO
M ^a Pilar Hernández Izaguirre	1137.007	Ekonomia eta aurrekontu kontroleko teknikaria
Lorea Ibañez Beltrán de Heredia	1141.002	Toki Erakundeetako ekonomia azterlanetako teknikaria
M ^a Teresa García Rodríguez	1368.002	Toki erakundeetako ekonomia eta kontabilitate teknikaria
Sergio Salazar Serradilla	1206.001	Toki Administrazioako kudeaketa teknikaria
Ana Belen García Bedoya	1206.002	Toki Administrazioako kudeaketa teknikaria

Bigarrena. Izendatutako pertsonen 2025eko irailaren 1an hartu beharko dute jabetzan esleitutako lanpostua.

Ezarritako egunean lanpostua jabetzan hartzen ez badute, salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo dituzte deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Foru Aldundiko funtzionario izaera izateko.

Hirugarrena. Sartu berri diren funtzionarioak esleitutako lanpostuei atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortutakoa izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru Agindu honen aurka, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin loturik.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 7a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR